Aldiri, 2018, III, **35**, 23-26, ISSN 1889-7185

ARTIKULU ZIENTIFIKOA

Afekzioen makroekitaldiak

Ekonomia forma berriak hirigintza-planen barrena

Laburpena

Azken urteetako makroekitaldien gorakada ekonomia politika berrien adierazle da. Plangintzen hutsuneaz baliatuta eta esperientzia bat bizitzea eskainiz espazio urbanoa aldi baterako konkistatu eta hirien eta bertako biztanleen egunerokotasuna konfiguratzen dute. Zer eragin dute plangintzek eta euren hutsuneek gure afekzioetan?

Gako-hitzak: ekonomia, makroekitaldiak, afekzioak, hirigintza-plana

Abstract

The increase of events in the last years it´s a signal of a new economy politics. Taking advantage of urbanism planning empty and offering an experience they occupy temporally the public space, setting the day of the cities and their inhabitants. How do the urban planning affect in our affections?

Keywords: economy, macro event, affections, urbanism plan

Ander Zangitu Orbea
Arkitekturan lizentziatua

Bidaltze data: 2018-09-10
Onartze data: 2018-09-29

BBK Live, MTV sariak, RedBull Cliff Diving, European Rugby Champions, The World´s 50 Best Restaurants…

Tituluan aipatutako makroekitaldi efimeroek elementu amankomun bat dute: Bilbo. Hirien homogeneizazio kosmopolita honetan batak bestearekiko bereizteko tendentzia izan dute (museoak, aireportuak, ekimen kulturalak, konferentziak…). Horren harira instituzioek eta bertako politikariek desberdintzeko ekonomia modu berri baten alde egin dute: «eventismoa». Hiriaren birkonfiguratze jarraikorrean fenomeno hau bere izena saltzeko modu berri bat da, efimeroa, ustez errentagarria eta teorian albo-kalterik sortzen ez duena. Kontsumo-produktu berri bat.

Politika horietan hiri asko oinarritzen dira (Bartzelona, Madril, Londres, Donostia…), baina aipatu beharrekoa da Bilbok azken urteetan eduki duen gorakada, munduko ekonomia-erakusleihoan kokatu delarik. Egungo hiriak etxeko legeen[1] forma berrien aurrean aurkitu dira. Dispositibo hauekin arkitektura eta hirigintza bigarren maila batean geratzen direla dirudi. Haatik horrela al da?

Kontsumo-eredu honek bere argi-ilunak eta zalantzak sortzen ditu. Instituzioak eta zerbitzuetan oinarritutako sektoreak dinamika hauen aldekoak dira. Alde batetik, bisitari berriak ekartzen ditu eta teorian, ongizatea hiriarentzat. Praktikan batzuek etekin ekonomikoa ateratzen dute, askotan multinazionalak, beste batzuen prekarietatean oinarrituta. Bestetik, bakoitzaren errealitatearen arabera, Bilbo, Bilbao edo «Bilbado», ekonomia eta jendartearen mapa hegemonikoetan kokatu da. Dispositibo hauekin «Bilbao» marka berri bat sortu da, Guggeheim efektuaren jarraipen gisa identifikatu daiteke, eta etorkizunean etorriko diren hiri-politiken adierazle. Finean, euskal lurraldeetako turismo masifikazioa ezin da ulertu hauek kontuan hartu gabe, zeharka erlazionatuta baitaude.

Hiritarrek politika hauen ondorioak pairatu dituzte eta horren aurrean haien kontrako protestak ere aipatu behar dira (Lekunberri, 2018). Erakargarriagoa egiteko dispositibo hauekin hiriaren dinamikak birkonfiguratzen dira. Gizartea dinamikoa, askotarikoa, koloretsua, alaia… bilakatzen da eta aldi berean bizilagun askoren egunerokotasuna aldatzen du: espazio publikoan masifikazioa, etxebizitzen transformazioa (AirBnB…), herritarren egunerokotasunaren aldaketa (zarata, zaborra…), komertzioen eredu eta ordutegi berriak, mugikortasun-aldaketak… Bestetik, eragin ekonomiko handiak aipatzen dira inongo daturik gabe, eta nazioarteko ekitaldiak Bilbora etortzea ez da Bilboren meritua, ekitaldi horiek erosi egiten dira nazioarteko merkatuan (Uriarte, I.).

Tempoak errespetatuz

Ekitaldi horietako batzuk espazio- eta denbora-tarte batean egiten diren okupazioak dira, hiritarrei espazio publikoa kendu eta kapitalak sotilki okupatzen dituelarik. Paradoxikoa da Bilbo, urteetan higiezin pribatuen okupazioen kontrako politika aplikatu du (Kukutza, Izarbeltz…) eta aldi berean espazio publikoaren inbasioaren aldekoa da (aurretik aipatutako ekitaldiak). Ekitaldi eta tabernen terrazen inbasioak, aldiz, etekin ekonomikoa helburu dutenez, espazio urbanoari prezioa jarri diote eta kasu batzuetan legebidea ez beteaz (Uriarte, 2018).

1 Ekonomia hitza antzinako grezieratik dator, oikos (etxe) eta nomos (lege), hau da, «etxeko legea» esan nahi du.

Aldiri, 2018, III, **35**, 23-26, ISSN 1889-7185

1. irudia ~ *Bilbon azken urteetan jorratzen ari den musika-jaialdia.*
Egilea ~ Alberto Cabello (Wikimedia Commons).

Espazio urbanoaren konkista mota desberdinak egon dira, jaietatik hasita, manifestazio, elkarretaratze edota ospakizunetara. Denek amankomunean zerbaiten aldarria eta komunitate-izaera dute, publikotasun eta balio batzuen adierazle izanik (Guillo, 2016). Komunitate eta gizartearen espazioak izan dira, baina betiere botereen arteko talkaren agertoki, eta azken urteetan aldaera batzuk pairatzen ari dira.

Hiria, gizartea, bizitza… erritmo frenetiko eta aldakor batean transformatzen ari dira. Espazio eta denbora batean aldatzen dira, baina azken urteetan denborak beste dimentsio bat hartu du. Arkitektura eta hirigintzan, aldiz, denboraren faktorea oso zaila da maneiatzea. Hirigintza-planek, esaterako, hiriaren etorkizunean garatzeko neurriak, lanabesak, mugak eta tempoak ezartzen dituzte. Horien aurrediseinua eta geroko gauzatzea gertatu orduko, denbora-tarte handi bat igarotzen da. Denbora eta prozedurak geldoak dira, gizartearekin konparatuz, beste erritmo eta tempo batzuetan oinarritzen dira.

Ekitaldi hauek erakutsi dute hirigintza-planen gabeziaz eta mugaz baliatu daitekeela: denborazkotasuna. Orain arte, udalak, herrialde honen historia laburrean, kapitalismo finantzarioaren eta guregan hartu duen formaren (higiezinen boom-a) beso gauzatzaileak izan dira (Garcés, 2018: 67). Egoera horren aurrean eta bizi dugun krisi sozio-ekonomikoan, politika berri hauek(«eventismoa») kapitalaren itxuraldatze eta forma berri gisa identifika daitezke. Hirietako espazio pribatu gehienak eraikinez beteta edo etorriko diren proiektuei itxaroten daude. Lurrak salduta daude, jabetza pribatuaren bitarteko irabaziak mugatuta. Hazkunde ekonomikoa ezin da gehiago lehengo eskemetan oinarritu eta horrek beste esperimentu batzuetara eraman ditu. Espazio urbanoak, aldiz, irabazi eta kostu gabeko eremuak, «event»-ekin elementu publiko batean irabazi ekonomiko pribatuak ematen direlarik.

Afekzioen kontsumo-eredua

Zer eskaintzen dute horrelako makro-ekitaldi masiboek? Nori egiten dio mesede? Instituzioek hauen bitartez zer eskaintzen dute? Hiriak leku dinamiko, kultural eta anitz gisa sailkatu, eta ondorioz erakargarria dela? Finean, elementu propagandistikoak dira baina hauen atzean eta muinean, zer dago?

Arkitektura historikoki elementu propagandistiko gisa erabili da: botere politikoak, enpresak, elizak… Adibide argiak dira eta erraz identifika daitezke. Hugh Hefnerrek esaterako bere pornografia-industria, Playboy negozioa, promozionatzeko arkitektura «sotileziaz» erabili zuen eta bere idealak lau haizetara zabaldu zituen (Preciado, 2010). Bilbon ere antzeko sotileziaz baliatu dira, kultura eta kirolean oinarritutako ekitaldiez ekonomia forma berri bat saltzen ari baitira. Aipatutako biak ideologia edo pantaila baten lanabesak dira, eta jendearen egunerokotasunean txertatuta daude. Nor dago printzipioz kultura eta kirolaren kontra?

Ideologia perfektua bere barruan bera dena ez erakusteko xedea eta errepresio-erreminta beharrik ez duena da (Serrano, 2011: 168). Arkitektura efimero hauek pairatzen diren ideologia ekonomikoaren gauzatze fisikoak dira. Begi-bistan elementu hutsala, lasaia eta otzana. Ekitaldia sostengatu,

2. irudia ~ *Festibalen eragina hirietan.*
Egilea ~ Alexa Barrios Janz.

3. irudia ~ *EAEko hiri nagusietan antolatzen diren ekitaldiak Lurralde Antolamendurako Artezbideetan gainjarrita.*
Egilea ~ Ander Zangitu Orbea.

Aldiri, 2018, III, **35**, 23-26, ISSN 1889-7185

esperientzia bat eskaini eta afekzioak birbideratzen dituzte. Azpiegitura hauekin ekonomia horren nahi eta helburuak ezkutatzen dira, afekzioekin gure bizitza antolatzen den bitartean. Betiere, afekzioa igarotze bat da, bakoitzaren potentziaren transformazioa bat, ideia, irudi edo pertsona batek sorrarazten digun efektuaren araberakoa (Garces, 2018: 134)

Etxeko lege forma berri hauekin kontsumo-eredu berri bat jorratzen da: afekzioen produktu-kontsumoa. Horren harira, Preciadok bizi dugun egungo errealitatea biokapitalismo farmazeutiko gisa definitzen du. Haren hitzetan, horrek ez ditu gauzak produzitzen, baizik eta ideia higikorrak, organo bizidunak, sinboloak, desioak, erreakzio kimikoak eta arimaren egoerak (Preciado, 2008: 47). Ekitaldi hauekin, ekonomia forma berri bat emateaz gain, gure gorputzak aipatutakoak bizitzen dituzte. Objektuen gizartetik sentsazioen bizitzara: irudi, momentu, gozamen… Horiek pertsonengan eragiten dute, pairatzen ari garen ekonomia ideologiko horren lan-tresnek kultura edo kirola erabilita, gure gorputzek kontsumitu eta kontrolatzen dituztelarik.

Gorputzak hustu hiriak betetzeko

Hiriak hutsune-betetze espazioak dira, publikoa dena hutsa eta betea pribatua. Pairatzen den ekonomia forma berri honek, aldiz, betea dagoena hustu eta hutsa dena betetzen du. Hau da, hiriko espazio hutsak bete eta gorputz beteak hustu, hirigintza-planen gabeziez baliatzen delarik.

Hiriak kontsumo-produktu bilakatu ziren, ekonomian oinarri eta haren arabera antolatuz, eta orain, aldiz, gure gorputzak dira kontsumo-produktu. Gorputzak katalizatzeko azpiegiturekin, event-ekin, haiek hustu eta betetzen dituzte. Horretarako, desio, irudi, mezu… desberdinen bonbardaketa jasaten dute: hauen kontsumoarekin gizakion izate potentzia aldatuz, hots, afekzioekin euren izaera hustuz eta hegemonikoa txertatuz.

Hirigintza-planak hiria kontsumo-produktu gisa bideratzeko eta zehazteko lanabesa izatetik, beste produktu batzuen erreminta izatera pasa dira. Afekzioen kontsumo-produktua eta bere politika plangintzen zirrikituetatik murgildu dira, euren gabeziaz baliatuz eta gauzatze fisikoa arkitektura efimero hauetan gauzatuz. Event-ak eta hiriak euskarri soilak bihurtu dira, afekzioen ekonomia berri eta basati honen adierazle. Hirigintza-planek horien jarduna mugatu behar al dute? Egun zertarako balio dute?

Plangintzen etorkizunerako erronka

Beharbada plangintzak zaharkituta gelditu dira eta birformulazioa baten aurrean daude, ekitaldi-festa hauek erakusten baitute hutsune eta gabezia batzuk dituztela. Hiria unitate oso bat edo zatika kontsideratu beharrean, milaka frakzio edo biztanle kopurutan banatu daiteke. Kontzeptu hauen inguruan asko hitz egin da, afekzioak plangintzetan txertatzeko nahi eta intentzioez (VIC, 2015).

Erreminta hau polisa antolatzeko eta mugatzeko erabili izan da. Limite bat. Afekzioak plangintzetan txertatzeak, hau da, afekzioen plangintzak, haien mugatzea eta arautzea ekarriko luke. Beraz, horien zedarriztatzeak pertsonen nahi eta desirak kontrolatzea ekarriko du. Beste modu batera esanda, kontrol-elementu bat.

Plangintzek guregan eta gizartean sortu dituzten afekzioen inguruan sakontzea beharrezkoa da. Haien funtzioa, helburuak, sortutako egoerak, eraginak, albo-kalteak edota alde positiboak mahai gainean jarri behar dira, benetan nahi bada hirigintza-planen (LAA, HAPO…) birformulazio bat. Finean, plangintzek afekzioetan izan duten papera eztabaidatzea. Plangintzek sortutako afekzioak eraikuntza sozial eta fisikoetan txertatuta daude, kaleetatik hasita gure bizitzetara. Horiek lehen lerrora ekartzeak etorkizuneko hirien eta gorputzen konfigurazioa ezbaian jartzea ahalbidetuko du. Horrela «etxeko legea», ekonomiak sortu dituen egoerak ezbaian jartzeko eta etorriko diren egoerak ez aurreikusteko.

Afekzioak, kontzeptu gisa, ez daude hirigintza-planetatik horren kanpo, baina egungo bizikidetzarako erabakigarriak dira. Boterea gorputzen desioaz eta botereaz jabetu da, eta horren adierazle da euskal geografia osoan dauden event-en kopuruaren loraldia. Esan daiteke gaur egun Lurralde Antolamendurako Artezbide berrien beharra dagoela, berandu etorri eta beharrezkoak direnak. Horietan event-en eragina neurtu edo mugatu beharra dago, eta etorriko direnak aurreikusteko, edo sortu diren egoerak konpontzeko. Berez oso zurruna den lanabes hau aldatu beharra dago, tokian tokikoari lehentasuna emanez eta ez ekonomia hegemonikoari bidea erraztuz. Globalaren eta lokalaren arteko talkaren beste adibide bat. Jada berandu da, baina ongizate eta oparotasun ekonomikoren izenean gure gorputzek dena onartu behar al dute?

///

Bibliografia

Garcés, M. (2018): *Ciudad Princesa*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona.

Guilló Arakistain, M. (2016): *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*, UEU, Bilbo.

Lekunberri, A. (2018): «Erakusleiho-hirian, distira propioari eusten», Argia, 2.602, 44-45.

Serrano, V. (2011): *La herida de Spinoza. Felicidad y política en la vida posmoderna*, Anagrama, Bartzelona.

Preciado, P.B. (2010): *Pornotopía. Arquitectura y sexualidad en «Playboy» durante la guerra fría*, Anagrama, Bartzelona.

Preciado, P. B. (2008): *Testo yonqui*, Espasa Libros, Bartzelona.

Uriarte, I. (2018): https://www.argia.eus/argia-astekaria/2602/inaki-uriarte-arkitektoa, bistaratutako eguna: 2018/09/04.

VIC (2015): http://viveroiniciativasciudadanas.net/2015/03/17/cartografias-afectivas-behind-the-openness/, bistaratutako eguna: 2018/09/04.